


Inhalazio bidezko analgesia



Emakume haurdunarentzako informazioa

Inhalazio bidezko analgesia gas-nahasketa bat ematea da, % 50ean oxido nitrosoa eta % 50ean oxigenoa. Horrek mina azkar arintzen du, eta pazienteak sedazio kontzienteko egoera batera bultzatzen du, nerbio-sistema zentralaren depresioaren bidez. Sistema horrek bere horretan mantentzen ditu laringe-erreflexuak, eta pazientearekin hizketan aritzea ahalbidetzen du.


Oxido nitrosoaren eta oxigenoaren proportzio orekatu horrek oxigenazio ona bermatzen du eta sedazioaren gaineko arriskua minimizatzen du. Arnastutako analgesia prozedura mingarrietan eta erditzeetan erabili ohi den metodoa da, helburu nagusia mina eta molestia murriztea denean, ahalik eta sedazio txikiena erabiliz. Erditzei dagokienez, erraz har dezakete etorkizuneko amek, emagin baten ikuskaritzapean.

Oso denbora gutxian eragiten duenez, erraza da dosia azkar doitzea, eta, horren ondorioz, mina arintzeko modu bat da, kontrol handia ahalbidetzen duena. Analgesia-mota hori berehala ezabatzen da organismotik, arnastu ostean. Ondorioz, bere eragina berehala galtzen da.

Oxido nitroso eta oxigeno konbinazio horren efektu lasaigarria ondo dokumentatuta dago, eta oro har Europako herrialde askotan erabiltzen da erditzeetan. Bere propietate analgesikoek eta antsiolitikoek ere erakutsi dute pazientearen beldurrak gainditzeko lagundu dutela, prozedura mingarriak aplikatu aurretik.


Noiz erabiltzen hasi erditzeak iraun bitartean?

- Erditzearen lehen fasean erabili ohi da.
- Erditzearen lehen faseetan ez ezik, fetua irteten ondoren miaketa osagarriak egin behar badira ere erabil daiteke.
- Unerik onena uzkurduaren lehen seinalea izatean da, eta, behar bezala erabiltzeko, emagin bat izango du lehenengo inhalazioetan, farmakoaren eraginkortasun osoa lortzeko.



Ba al du beste ondoriorik?

- Ama batzuek albo-ondorioak izan ditzakete, baina, normalean, berehala desagertzen dira arnastea amaitutakoan.
- Ondorioak ohikoenak hauek izaten dira: goragaleak, okadak, ahoaren lehertasuna, nekea eta eskuko hatzen inurridura.



Ezaugarriak

- Mina arintzea.
- Erditze-prozesuan gorputzaren kontrola izan eta ahalik eta modu naturalenean esperientatu nahi duten pazienteentzat aukera.
- Ez du mugimendurik eragozten jaio aurreko aldi osoan.
- Azkar hasten da lanean, eta ondorioak eten egiten dira azken inhalazioa egin eta minutu gutxira.
- Efektu analgesikoak, lasaigarriak eta antsiolitikoak.
- Segurtasun-emaizta bikainak erabili duten amentzat eta haurrentzat.
- Beste metodo analgesiko batzuekin konbinatuta erabil daiteke.
- Erditzeetan erabiltzeari buruzko esperientzia egiaztatua.

Zer bizkortasunez jokatzen du?

Gas-nahasketa 20-30 segundoren buruan hasten da lanean, eta 2-3 minuturen buruan arintze osoa lortzen da. Kontrakzioak noiz gertatzen diren kontrolatuta, nahasketaren hornidura sinkronizatu egin daiteke, ahalik eta efektu handiena lortzeko.


Zer bizkortasunez eteten dira ondorioak?

Produktua hartzen amaitu eta gutxira desagertzen dira.

Analgesia bidezko inhalazioa erabiltzeak eraginik al du haurraren?

Ez da antzeman eragin negatiborik haurraren. Izan ere, analgesia-mota horrek oxigeno-kontzentrazioa areagotu dezake amaren odol-fluxuan, eta hori onuragarria da haurrarentzat, bereziki erditzearen uzkurduetan.

Analgesia por inhalación



Información para la mujer embarazada

La analgesia por inhalación es la administración de una mezcla de gases al 50 % de óxido nitroso y al 50 % de oxígeno que proporciona un alivio rápido del dolor, induciendo a la o el paciente a un estado de sedación consciente, mediante la depresión del sistema nervioso central que mantiene intactos los reflejos laríngeos y permite mantener el contacto verbal con la o el paciente.

Esta equilibrada proporción de óxido nitroso y oxígeno garantiza una buena oxigenación y minimiza el riesgo de sobredosificación. La analgesia inhalada es un método utilizado habitualmente durante procedimientos dolorosos y partos, cuando el principal objetivo reside en la disminución del dolor y las molestias con la mínima sedación. En el caso de los partos, puede ser administrada de forma sencilla por las futuras madres, bajo la supervisión de una matrona.

Como actúa muy poco tiempo, resulta fácil ajustar la dosis con rapidez y esto hace que sea una forma de aliviar el dolor que permite gran control. Este tipo de analgesia se elimina rápidamente del organismo una vez finalizada su inhalación. En consecuencia, su efecto desaparece enseguida.

El efecto calmante, relajante y sedante de esta combinación de óxido nitroso y oxígeno está bien documentado y se usa de forma generalizada en los partos en muchos países de Europa. Sus propiedades analgésicas y ansiolíticas también han demostrado ayudar a superar los temores de la paciente antes de someterse a procedimientos dolorosos.


¿Cuándo comenzar a usarla durante el parto?

- Habitualmente se usa durante la primera fase del parto.
- Además de en las primeras fases del parto, se puede utilizar si, tras la salida fetal, se requieren exploraciones complementarias.
- El mejor momento es en la primera señal de la contracción y para su correcta utilización, estará acompañada de una matrona en las primeras inhalaciones para conseguir la completa efectividad del fármaco.



¿Tiene otros efectos?

- Algunas madres pueden experimentar efectos secundarios, pero habitualmente desaparecen rápidamente una vez finalizada la inhalación.
- Los efectos más comunes suelen ser: náuseas, vómitos, sequedad de boca, fatiga y hormigueo de los dedos de la mano.



Características

- Alivio del dolor.
- Elección para pacientes que desean tener el control de su cuerpo durante el proceso del parto y experimentarlo de la forma más natural posible.
- No impide movimientos durante todo el período previo al nacimiento.
- Comienza a actuar rápidamente y sus efectos cesan a los pocos minutos después de la última inhalación.
- Efectos analgésicos, sedantes y ansiolíticos.
- Excelentes resultados de seguridad para madres y bebés que lo han usado.
- Se puede usar en combinación con otros métodos analgésicos.
- Experiencia contrastada de su uso en partos.

¿Con qué rapidez actúa?

La mezcla de gases comienza a actuar tras unos 20-30 segundos, obteniéndose alivio completo tras unos 2-3 minutos. Controlando cuándo se producen las contracciones, el suministro de la mezcla puede sincronizarse para conseguir el máximo efecto.

¿Con qué rapidez desaparecen los efectos?

Desaparecen poco después de que cese la administración del producto.

¿El uso de la analgesia por inhalación afecta a la o el bebé?

No se conocen efectos negativos en la o el bebé. De hecho, este tipo de analgesia puede aumentar la concentración de oxígeno en el flujo sanguíneo de la madre, lo cual es beneficioso para la o el bebé, especialmente durante las contracciones del parto.